

Euskal Herria ez da saldu digutena



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Duela bi urte heldu nintzen Euskal Herrira. Noan lekura noala, bisitan bada ere, tokian tokiko oinarri materiala ulertzen saiatzen naiz: zeintzuk diren sektore nagusiak, langabezia tasa, KPIa edota bertako gutxieneko soldata. Konbentzita nengo baserriarren herri batera helduko nintzela, garapen nazionalaren beharretara lerratutako burgesia industrial indartsu batekin eta, turistifikatutako Herrialde Katalanen aldean, lan baldintza ez hain prekarioduna. Hala ere, topatu dudan errealitatea ideia hartatik oso urrun dago: merkatu libreari esker, Euskal Herria ere tertziarizatzen ari da eta inbertsio funtsak ez dira soilik etxebizitzetaz jabetzen ari.

Badira urte batzuk arrisku-kapitaleko eta bestelako funtsen presentzia hazi dela euskal enpresetako akziodun nagusien artean. Funts horiek enpresen kontrola hartzen dute, Euskal Herriaren garapen interesekin kontraesanean dagoen agenda bat inposatuz. Esaterako, BM eta Amara supermerkatuen jabe den Uvesco enpresa, Angulas Aguinagaren jabe ere baden PAI Partners funts fran-

Lehen bertan ekoizten zena, orain kanpotik erosi behar dugu. Hortaz, ezin dugu erabaki zer eta nola ekoizten dugun, ezta nola banatzen dugun ere

tsesak erosi du aurtan. Cinven, KKR eta Providence funtsen jabetza da Euskaltel, Masmovil enpresari lau xoxen truke saldu ostetik. ITP, Bain Capital-ena da, Aernnovan Towerbrook funtsa da partaide nagusi, Solapark Danimarkako EQT inbertsiofuntsak erosi du, eta abar luze bat.

Enpresa itxierak, deslokalizazio partzialak zein erabatekoak, horietatik erarortitako kaleratzeak... Euskal Herrian

industria-enplegua eta horri lotutako zerbitzuak suntsitzeko joera argia da. Arabako industria-enplegua %4,5 murriztu da 2009tik 2022ko hirugarren hiruhilekorako tartean, Bizkaian %10,49, Gipuzkoan %16,67 eta %5 Nafarroan. Hala ere, jaitsiera askoz nabarmenagoa izan da lehen sektorean: %38,46 Araban, %66,67 Bizkaian, %35,29 Gipuzkoan eta 31,16 Nafarroan. Aitzitik, zerbitzuen sektorean, non soldatak askozaz baxuagoak diren, %8,23 igo da Araban, %11,03 Bizkaian, %8,18 Gipuzkoan eta %15,73 Nafarroan.

Ekoizpen-mailako aldaketa horrek Euskal Herriko langile ororen soldatean eragin zuzena izateaz gain, kanpomentekotasun handiagoa ere sortzen du: lehen bertan ekoizten zena, orain kanpotik erosi behar dugu. Hortaz, ezin dugu erabaki zer eta nola ekoizten dugun, ezta nola banatzen dugun ere. Eredu honek prekarizaziora garamatza eta zuzenean egiten du euskal herritarren aurka, ez garelako uste bezain baserriar, ez industrial, eta beraz, ezta burujabe ere. ●



Eskerrik asko urte hauetan guztietan gure ondoan egon zareten denoi